



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2020KO MARTXOAREN 25EAN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

12. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeiko martxoaren 25ean, eguerdiko ordu batean elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorriak:

Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2020ko otsailaren 26an eta 2020ko martxoaren 9an eginiko bilkuretako aktak aurkeztu dira eta honakoak izan dira bozketak:

2020ko otsailaren 26ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko otsailaren 26an egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2020ko martxoaren 9ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioa: Angel M^a Etxeberria Iburguren.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko martxoaren 9an egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

2.- 2020 EKITALDIRAKO UDAL ARAUDI PLANAREN ONESPENA.

Ana Azkoitia andreak honako irizpena aurkeztu du:

“2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen 39/2015 Legea. Honen 132. Artikuluak honakoa dio:

Artículo 132. Planificación normativa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.

2. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da eta Alkatetzatik, Ogasun sailetik, , Gizarte Ongizate Sailetik, eta Hirigintza Sailetik jaso dira proposamenak udal honek onartuak dituen hainbat ordenantza aldatzeko edo berriak onartzeko. Hori horrela, 2020rako honako Araudi Plana aurkezten zaio Udal honetako osoko bilkurari, honek onar dezan:

“2020RAKO ARAUDI PLANA.

Ikusita, 39/2015 Legearen 132. Artikuluak xedatzen duela udal honek 2020. Urtean onartzea edota aldatzea proposatzen duen araudien inguruko planifikazioa egikaritu behar duela.

Ikusita, baita ere, araudi plan honen helburua planifikazioa dela, eta herraminta honek udal barneko sailetan lana egokiago antolatzeko balio dezakeela, bai eta udal langileek eta herritarrek udalak onartu nahi dituen araudi berri edo hauen aldaketen berri izateko.

Udal sailek egindako azterketaren ondorioz, honakoa da 2020. urtean onartu edo aldatzea proposatzen den ordenantzen zerrenda:

1.ALKATETZA

1.1. HILETA ZIBILEN ORDENANTZA (berria)

Azkoitiko herrian gaur egun gai hau arautu gabe dago eta gero eta handiagoa herritarren eskaera. Heriotza baten aurrean erlijiotik at dagoen agur bat izateko nahia



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

duten herritarrak gero eta gehiago dira, eta horretarako beharrezkoa da Udalak hileta zibilak egiteko aukera arautzea. Arautegian hileta horiek egiteko leku eta ezaugarrien inguruko marko bat zehaztuko da.

2. OGASUN SAILA:

2.1.- 2021ERAKO ORDENANTZA FISKALA (aldaketa)

Ordenantza honen xedea da udal tributu eta prezio publikoen urteko errebisioak gauzatzea eta berauek eguneratzea, bai zerga, tasa eta prezio publikoen kopuruari dagokionean, bai eta hobari edo exentzioei dagokionean. Honetarako udalak kontuan hartu behar ditu bultzatu edota ekidin nahi dituen egintza edo helburuak.

2.2.- ORDENANTZA OROKORRA, ZERGEN ETA TOKI ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRUSARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA BILKETA ARAUTZEN DUENA (aldaketa)

Ordenantza hau oso zaharkitua dago. Onartu zenetik gaurdaino egon diren legedi eta irizpide aldaketetara egokitu beharrean dago eta batez ere, gaur egungo ordenantza fiskaletan azaltzen diren mugetara.

3. GIZARTE ONGIZATE SAILA

3.1. GIZARTE LARRIALDIKO OSTATU ZERBITZUA ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldaketa)

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoak jaso eta Karterak deskribatzen dituen udal eskumeneko zerbitzura egokitzea bilatzen duen ordenantza onartu beharko luke udalak. Ostatu zerbitzu hau Udalak egun eman egiten du, arautegia zaharkitua dago eta hortaz, arautegi egokitua sortzea proposatzen da, aipatutako arau eta markora egokitua izan beharko dena.

4. HIRIGINTZA SAILA

4.1.- BIDE PUBLIKOEN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA (aldaketa)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Indarrean dugun ordenantza erabat atzeratuta gelditu da. Lizentziak ematerakoan ezinezkoa da beronen aplikaziotik eratorritako baimenik ematea.

Gainera, hortaz gain, aurreko urteetan espazio publikoen erabilpenaren inguruko araudia aldatu denez, 10/2015 Legea bitarteko, gure ordenantza egokitu beharrean gara bertako irizpideetara.

4.2.- ZIRKULAZIORAKO EGOKIAK DIREN LUR ETA BIDE PUBLIKOETAKO ERABILERAK, TRAFIKOA, IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETA BIDE SEGURITATEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA. (ALDAKETA)

Kasu honetan ere ordenantza zaharkitua dago, eta aldaketa beharrezkotzat jotzen da gutxienez hurrengo puntuetan:

- Kotxe elektrikoek karga puntuetan aparkalekua galarazi.
- Ibilgailuen IBlak: garajea aurrealdean aparkalekurik ez dagoen kasuetarako, baimena ematea gomendagarria ikusten da; Ordenantzaren intentsioekin bat datorren neurria da, ibilgailuak eremu publikotik kentzeko balioko lukeena.
- TEAVIALEk proposatuta piktogramen sekuentzia gehitzea oinezkoen seinaleztapen horizontalaren parte gisa.
- Patinete elektrikoek gaia aztertuko da.

Hori horrela, Antolakuntza Batzordeak martxoaren 18an egindako bilkuran osoko bilkurari honakoa onartzea proposatu dio:

Lehenengoa: 2020rako Udal Araudi Plana onartzea, aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea.

2020ko martxoaren 18ko Antolakuntza batzordeak irizpena aztertu du eta honakoa izan da bozketaren emaitza:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alde: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Iraitz Otaño, Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz.”

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du egokia iruditzen zaiela legeak agintzen duelako, eta beraien ekarpenak ere kontutan hartu direla gehitu du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020 ekitaldirako Udal Araudi Plana onartzea aho batez erabaki du.

3.- 2020 EKITALDIKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: 2020 EKITALDIKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA

AURREKARIAK

Azkoitiko Udalbatza Plenoak, 2019ko abenduaren 27an egindako bilkuran, bestek beste, 2020 ekitaldiko udaleko, bere erakunde autonomoetako eta Azkoitia Lantzen, S.A. erakundeko aurrekontuak – bateratua - hasieraz onartu zituen. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikulua xedaturikoari jarraiki, jendaurrean jarri zen, bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean - 2020ko urtarrilaren 14an 8. zkian – eta baita Udaletxeko iragarki ohoan eta zabalkunde handiena duen egunkarian, hamabost eguneko epean, interesatuek erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez – 2020ko otsailaren 4an amaitu zen - , 2020ko Aurrekontu Orokorra behin betikotzat jo zen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2020ko otsailaren 11an 27. zkian aurrekontuak kapituluka laburtuta eta baita Udaletxeko iragarki ohoan, web orrian eta udaleko gardentasun atarian ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aipatu espedienteak, besteak beste, Udal Langileen Aurrekontu-plantilla zeukan bere barnean, non 2020ko ekitaldirako aurreikusiriko udaleko pertsonalaren gastua justifikatu baitzen.

Irizpen honen xedea, bai Estatuko eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko legediek ordainsarien igoeraren arloan xedaturikoa aintzat harturik, 2020ko ekitaldiko udal langileen eta korporatiboen ordainsarien igoera ahalbidetzea da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzeko abenduaren 27ko 13/2019 Legearen – EHAA 2019ko abenduaren 31an 248. Zkian argitaratua - 19. Artikuluak sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak ezartzen ditu.

Legearen 19.1 artikulua ondorengo xedatzen du: *“1.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, 2020. urtean, lan-araubidekoak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko lansariak % 2ko gehikuntza izan ahal izango dute, behin-behinean eta aldi baterako, 2019ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean. Lansari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez bai lanaldi-araubideari dagokienez.”*

Legearen 19.5 artikulua xedatzen duenez, *lan-araubidekoak ez diren langileek jaso beharreko oinarrizko lansariak izango direla aurrekontu-ekitaldian zehar indarrean daudenak, Administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko lansarien araubidea erregulatzen duten arauak jarraituz*, eta 19.6 artikulua Aparteko ordainsariak (urtean bi izango dira, bata ekainean eta bestea abenduan) jasoko dira artikulua honen 5. paragrafoak zehaztutako soldataren eta hirurtekoaren kopuruen arabera, eta hileko bati dagokion destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren edo baliokidea den kontzeptuaren arabera, betiere, paragrafo hau aplikatu ahal zaien kolektiboen ordainsari-araubideak dioena kontuan hartuta.

Artikulu horren ondorengo ataletan ondokoa xedatzen dela, nabarmentzekoak ondorengo puntuak:

7.– Lansari osagarriak % 2ko gehikuntza izan ahal izango dute, behin-behinean eta aldi baterako; hala ere, aldaketa batzuk egin ahal izango dira programa bakoitzari



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz.

8.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako gehikuntzaren zenbateko globala osagarri iragankor gisa ordainduko da, hala dagokionean, harik eta administrazio publikoetako funtzionarioen 2020ko ekitaldirako oinarrizko ordainsariak erabaki arte. Oinarrizko lansari horiek egokitzen direnean, Gobernu Kontseiluak zehaztuko ditu uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Funtzio Publikoari buruzkoak, 79.1.a artikuluan arautzen duen destino-osagarriaren urteko munta eta gainerako lansari osagarri guztiena.

9.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, 2020ko urtarrilaren 1ean lan-araubidearen pean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako, sozietate publikoetako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoetako **langileen soldata-masak, guztira, % 2ko gehikuntza izan ahal izango du, 2019ko ekitaldian ezarritakoaren aldean, behin-behinean eta aldi baterako**; hala ere, bestelako gehikuntza bat erator liteke lanpostuko edukiaren aldaketaren ondorioz, programa bakoitzari atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz, edo lana antolatzeko edo lanbide-sailkapena egiteko sistemen aldaketen ondorioz.

...

13.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, **lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitako**en 2020ko ekitaldirako lansariak **% 2ko gehikuntza izan ahal izango dute**, behin-behinean eta aldi baterako, 2019ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean, antzintasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntzari kalterik egin gabe.

14.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, **behin-behineko langileen lansariak % 2ko gehikuntza izan ahal izango dute**, behin-behinean eta iragankortasunez, 2019ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean, antzintasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe, eta, betiere, beren lansariak erreferentziatuta dauden kategoriari dagokion diru kopuru osoa errespetatuta.”

Halaber, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 21. eta 23. artikuluek ezarritakoarekin bat, non sektore publikoko langileen oinarrizko ordainsariak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarri behar diren xedatzen duen eta aintzat hartuta ekitaldia hasterako 2020 ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu gabe



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

zeudela, horiek onartu arte edota lansarien arloko ezin neurri onartu arte ezin izan dela ordainsarien kontzeptu guztien igoerarik onartu.

II.- Egoera horren aurrean eta 2020 ekitaldiko Estatuko Aurrekontuen onarpenaren faltan, sektore publikoko langileriaren ordainsarien igoera ahalbidetzeko xedez, Estatuak, Sektore Publikoaren eremuko ordainsarien arloan presazko neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen, 2020ko urtarrilaren 22ko Estatutako Aldizkari Ofizialean 19. Zenbakian argitaratu zena.

Aipatu Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua Dos atalak, ondokoa xedatzen du sektore publikoko langileen ordainsarien igoeraren inguruan:

“Dos. En el año 2020, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2019, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. A estos efectos, en las retribuciones de 2019 el incremento del 0,25 por ciento vinculado a la evolución del PIB se considerará, en cómputo anual. Los gastos de acción social, en términos globales, no podrán experimentar ningún incremento en 2020 respecto a los de 2019. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2019 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2020, otro 1 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,20 %.

PIB igual a 2,2: 2,40 %.

PIB igual a 2,3: 2,60 %.

PIB igual a 2,4: 2,80 %.

...

Cuatro. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior, teniendo en cuenta, en cómputo anual, el incremento vinculado a la evolución del PIB autorizado en 2019.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Se exceptúan, en todo caso:

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.

Cinco. 1. Los funcionarios a los que resulta de aplicación el artículo 76 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre (en adelante, EBEP), e incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de medidas para la reforma de la Función Pública, en los términos de la disposición final cuarta del EBEP o de las Leyes de Función Pública dictadas en desarrollo de aquel, percibirán, en concepto de sueldo y trienios, en las nóminas ordinarias de enero a diciembre de 2020, las cuantías referidas a doce mensualidades que se recogen a continuación:

Grupo/Subgrupo EBEP	Sueldo	Trienios
	–	–
	(Euros)	(Euros)
A1	14.442,72	555,84
A2	12.488,28	453,36
B	10.916,40	397,68
C1	9.376,68	343,08
C2	7.803,96	233,52
E (Ley 30/1984) y Agrupaciones Profesionales (EBEP)	7.142,64	175,80

2. Los funcionarios a que se refiere el punto anterior percibirán, en cada una de las pagas extraordinarias de los meses de junio y diciembre en el año 2020, en concepto de sueldo y trienios, los importes que se recogen a continuación:

Grupo/Subgrupo EBEP	Sueldo	Trienios
	–	–
	(Euros)	(Euros)
A1	742,70	28,59
A2	759,00	27,54
B	786,25	28,66
C1	675,35	24,69
C2	644,40	19,27
E (Ley 30/1984) y Agrupaciones Profesionales (EBEP)	595,22	14,65



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Seis. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, las retribuciones a percibir por los funcionarios públicos que hasta la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el año 2007 han venido referenciadas a los grupos de titulación previstos en el artículo 25 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, están referenciadas a los grupos y subgrupos de clasificación profesional establecidos en el artículo 76 y disposición transitoria tercera del EBEP, sin experimentar otras variaciones que las derivadas de este real decreto-ley. Las equivalencias entre ambos sistemas de clasificación son las siguientes:

Grupo A Ley 30/1984: Subgrupo A1 EBEP.

Grupo B Ley 30/1984: Subgrupo A2 EBEP.

Grupo C Ley 30/1984: Subgrupo C1 EBEP.

Grupo D Ley 30/1984: Subgrupo C2 EBEP.

Grupo E Ley 30/1984: Agrupaciones profesionales EBEP.

Siete. Lo dispuesto en los apartados anteriores debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

Ocho. Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.

Nueve. Las referencias relativas a retribuciones contenidas en este real decreto-ley se entienden siempre hechas a retribuciones íntegras.

Diez. Los límites establecidos en este artículo serán de aplicación a las retribuciones de los contratos mercantiles del personal del sector público.

Once. Este artículo tiene carácter básico y se dicta al amparo de los artículos 149.1.13.ª y 156.1 de la Constitución. Además, el apartado Tres se dicta en aplicación de lo dispuesto en el artículo 29 del EBEP."

Hori guztia oinarrizko ordainsariei dagokionean eta **osagarri**ei dagokionean berriz, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 24. artikulua, horiek Herri Administrazio bakoitzari dagozkion legediek ezarriko dituztela xedatzen du. EAEko kasuan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5.1 g) artikuluan ezarritakoren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuko funtzionarioen lansari-araubidea eta gainerako langileen lansari-baldintzak ezartzeko arauak eta jarraibideak urtero ezartzea eta 79. artikulua ezartzen du destino osagarrien mailen zenbatekoak urtero finkatuko direla EAEko Aurrekontu Orokorretan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Halaber, arestian esan bezala, EAEko Aurrekontu Orokorrak onartu zirenean oraindik Estatukoak onartu gabe zeudenez, 2020 ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legearen Azken Xedapenetako Bosgarrenean ondokoa jaso zen:

“AZKEN XEDAPENETAKO BOSGARRENA.– Garapena eta gauzatzea.

1.– Baimena ematen zaio Jaurlaritzari lege hau garatzeko behar diren xedapenak, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak proposatuta, emateko.

2.– Baimena ematen zaio Gobernu Kontseiluari Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsari-araubidea eta -baldintzak egokitzeko, Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak proposatuta, 2020ko ekitaldian sektore publikoko langileen gastuei dagokienez eman daitezkeen oinarritzko xedapenen arabera.

3.– Organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen eremuan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta patzuergoen eremuan ere, bakoitzaren gobernu-organoaren eginkizuna izango da lege honen 19. artikuluan eta hurrengoetan eta lege hau garatzeko egiten den araudian jasotzen diren neurriak aplikatzea.”

III.- Hori horrela, Estatuak ordainsarien arloan finkatu beharreko neurriak ezarrita, 2020 ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legearen Azken Xedapenetako Bosgarrenean ezarritako baimena egikaritzeko xedez eta aintzat hartuta abenduaren 27ko 13/2019 Legearen 19.7 eta 19.8 artikuluek xedaturikoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariak, 20/2020 Ebazpena, otsailaren 4koa, zeinaren bidez argitara ematen baita Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako akordio bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuan diharduten langileen 2020ko lansarien igoerak onartzen dituen eman duela – EHAA 2020ko otsailaren 14an 31. Zkian argitaratua -.

20/2020 Ebazpenaren bidez ondoko akordioak hartu dira:

AKORDIOA

«Lehenengoa.– Baimena ematea 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden urteko guztizko lansarien aldean % 2 gehitzeko, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, organismo



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sektore publikoko partzuergoen zerbitzura dauden eta lan-kontratukoak ez diren langileen guztizko lansarietan, baita lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitakoen, behin-behineko langileen eta Zuzendaritzako langileen lansarietan ere.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionario eta estatutupeko langileek oinarritzko lansari hauek jasoko dituzte:

a) Soldata eta hirurteko gisa, 2020ko urtariletik abendura bitarteko nomina arruntetan (zenbatekoak hamabi hilekori dagozkie):

(Estatuak ezarritako taula)

b) 2020ko ekaineko eta abenduko aparteko lansari bakoitzean, soldata eta hirurteko gisa, kopuru hauek:

(Estatuak ezarritako taula)

Hirugarrena.– 2020an, lanpostu-maila bakoitzari dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa honakoa izango da (zenbatekoak hamabi hilekori dagozkie):



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

MAILA	Urteko zenbatekoa euroak
30	18.123,36
29	16.109,40
28	14.397,84
27	12.786,84
26	11.276,88
25	9.766,68
24	9.162,48
23	8.508,24
22	7.903,92
21	7.300,20
20	6.796,92
19	6.393,96
18	5.991,24
17	5.638,32
16	5.286,24
15	4.933,80
14	4.581,72
13	4.228,92
12	3.876,96
11	3.524,40
10	3.244,56
9	3.011,76
8	2.825,28

...

Bosgarrena.– Funtzionarioen gainerako lansari osagarriek, halaber, % 2ko igoera izango dute, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Hala ere, aldaketa batzuk egiteko modua izango da programa bakoitzari atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz.

Seigarrena.– Lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta langile berdinetsitakoen lansariak hauek izango dira, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera:

...

Zazpigarrena.– Behin-behineko langileen lansariak % 2ko igoera izango dute, 2020ko urtarrilaren 1etik, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, antzintasunagatik egokitu ahal zaiena gorabehera.

...



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bederatzigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, haren organismo autonomoetan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoan diharduten lan-kontratudunen lansariak %2ko igoera izango dute, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

*Hamargarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako enteen zerbitzuan diharduten **lan-araubideko langileen soldata-masa ezin izango da %2 baino gehiago igo 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.***

Aurreko paragrafoan jasotakoa 2020ko soldata-masaren gehieneko muga da; horren banaketa eta bakoitzari aplikatuko zaiona negoziazio kolektiboaren bidez erabakiko da.

Hamaikagarrena.- Osagarri pertsonalak eta iragankorrak, baita zerbitzuarengatiko kalte-ordainak ere, beren araudi espezifikoen arabera arautuko dira, eta horien kopuru indibidualak ezingo dira %2 baino gehiago igo 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.”

Beraz, Antolakuntza Batzorde Informatzaileak ondoko irizpidearen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

IRIZPENA

LEHENA.- Udal langileen ordainsarien %2ko igoera onestea, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, 2020ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginez.

BIGARRENA.- Sektore Publikoaren eremuko lansarien arloan presazko neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua Dos atalaren bigarren paragrafoak xedaturikoaren ondorioetarako, 2020ko uztailaren 1etik aurrera aplikatu beharreko ordainsarien gehikuntza, dagokionean, INEk BPGren aurrerapena argitaratu ondoren, Ministroen Kontseiluak gehikuntzaren inguruan harturiko erabakiak xedaturikoaren arabera onartuko du Udalbatza honek.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Udal-kontu-hartzailetzari ematea.

2020ko martxoaren 18ko Antolakuntza batzordeak irizpena aztertu du eta honakoa izan da bozketaren emaitza:

Alde: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Iraitz Otaño, Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak aldeko botoa iragarri du, soilik udal langileen ordainsarien igoera delako.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020 ekitaldiko udal langileen ordainsarien igoera onartzea aho batez erabaki du.

Alkate jaunak lan zerrendaz kanpo hiru irizpen onartzea proposatzen dela azaldu du, horretarako gaien premiatasuna bozkatu behar da eta hiru gaien premiatasuna batera bozkatzea proposatu du ez badago eragozpenik.

Batzarkideak ados agertu dira, eta hurrengo hiru irizpenen premiatasuna onartzea aho batez erabaki dute.

4.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA PREMIATASUNEZ.

Ana Azkoitia andreak bizitzen ari garen ez ohiko egoera honetan egunero erabaki berriak hartu beharrean daudela azaldu du eta horietako bat dela honakoa dio. Udalak Gurutze Gorriarekin eta osatu den boluntario sarearekin adinekoen oinarritzko beharrak asetzeko zerbitzua martxan jarri du. Kasu batzuetan dirua aurreratu beharra egongo denez, diru partida bat ipintzea proposatzen da beharrezkoa bada erabiliko dena. Horretarako gerakina erabiliko da.

Honakoa da irizpena:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

1.- AURREKARIAK

2020urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapidetza aplikagarriak zaizkion legeri egokitzen zaiela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

TXOSTENA

AZKOITIKO UDALA

KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

KREDITU GEHIGARRIA 1/2020

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa
- 2020rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibidea (2019ko azaroaren 14an argitaratuak GAO)
-

AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA
SAN JOSE EGOITZA
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu aldaketaren espedienteak --**1.829.029,96** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2019ko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Udaleko diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurreiazko txertaketak egiteko.

Doiketa honen zioa Diputatuen Kontseiluaren Akordioak, 2019ko azaroaren 14koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko 1 erregelako azken atalean zehazturik dago. Bertan dio egonkortasun helburuaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkaria Komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziakzioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren 2018ko aurrikusiriko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2020	503.514,95
Kreditu txertaketa 2/2020	1.420.933,68
Kreditu gehigarria 1/2020 udala	10.000,00
GUZTIRA	1.934.448,63

. Honegatik doiketa 1.934.448,63 €koa da eta ondorioz **espedienteak 105.418,67ko superabita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Finantzen iraunkortasuna

2020ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 3.309.844,37€, 2019an likidatutako sarrera arrunten (15.802.667,16€) % 20,94 izango da. Kalkulua egiteko, 2019ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2020rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2020rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

2020rako ezarritako helburua magnitude hori %70 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2020ko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2020rako helburua.

Gastuaren araua

Une honetan ez da gastu arauaren azterketa egingo. Hau, 2020ko jarraibideen arabera, 2020ko aurrekontuaren likidazioa egitean egiaztatuko da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.3.- ONDORIOAK

2020ko Udaleko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarriak 1/2020bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren (gerakinaren doiketaren ondorioz),finantza iraunkortasunaren arloetan 2020rako ezarritako helburuak eta gastu araua ere.

Ondorioz 2020ko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarria 1/2020 espedienteak, 2019ko azaroaren 14koa,Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko 1 erregelako azken atalean zehazturikoa betez, hau da, egonkortasun helburuaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu 1/2013 Foru Arauaren 5. Artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako Komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzari dio.

1 Erregelaren azken paragrafoak dio plan ekonomiko finantzario bat egiteko betebeharra zehazteko, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Hau horrela izanik kontu hartzaile honek ez du une honetan entitatearen finantza iraunkortasunaren azterketa eta ebaluaketa egingo.
Azterketa hau 2030ko aurrekontuaren likidazioa egitean egingo da, beti ere erregela honetan ezarritako helburua beteko ez balitz.

Azkoitian, 2020ko nartxoak 25ean
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

SARREREN KONTZE EDOTA GASTUEN PARTIDA	BALIABIDENKONTZE			
CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	CONCEPTO DEL RECA			
2 1000.870.000.00.01	Druzaintzako oerakina gastu orokorretako/Remanente de Tes.			
	SAIHEA HILABEKOAKO EREKOTSAI MAIORIAN			

2.- PRESAZKO IZAERA:

Koronabirusen ondorioak azkar kudeatzeko asmoarekin tramitatzen da kreditu aldaketa hau . Beraz, presazko izaeraren kudeaketaren xedapenak ezartzen zaio.

Urriaren 1eko 39/2018 legearen 33. Artikuluan xedatzen da era honetara:

33. artikulua. Presaz izapidetzea.

1. Interes publikoaren arrazoiak direla eta, prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizioz edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, erdira murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekurtsioak aurkeztekoak.

2. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu prozedura presaz izapidetzekoa dela deklaritzen duen erabakiaren kontra, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRIZPENA

LEHENENGO: Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitio Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 10.000,00 € zenbatekoa.

BIGARRENA: Presazko izaeraz kudeatu denez Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako informazioari, erreklamazioei, publizitateari eta baliabideei buruzko izapideak zaizkio aplikatzekoak eta epeak erdira murriztuko dira, hau da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jende aurrera azalduko da zortzi egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azalduko Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

HIRUGARRENA: Antolakuntza batzordeak egingo duen hurrengo bileran irizpen hau berretsi beharko du."

Jose Joakin Etxaniz jaunak diru kopuruak gehitzeko posibilitatea badagoen galdetu du, alde batetik partidarena eta bestetik Ongizate arduradunari aurreratu daitezkeen 6.000€-ak. Ana Azkoitiak andreak baiezkoa erantzun dio, partida gehitzeko arazorik ez dagoela, eta 6.000€-ak berriz, Kontuhartzaitzako gomenioz prudentziaz jartzen den zenbatekoa dela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak kreditu aldaketak ez direla beraien oniritzia jasotzen duten akordioak azaldu du, baina kasu honetan azalpen deia jaso dutenez eta helburua ona dela ikusita aldeko botoa iragarri du. Pertsonalki kreditu aldaketa bati aldeko botoa ematea ilusioa ematen diola esan du, eta ea aurrerantzean ere horrela jarraitzen den.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020 ekitaldiko 1 zenbakidun kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketa hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

5.- 2020KO UDALEKO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA PREMIATASUNEZ.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ana Azkoitia andreak gai hau aurrekoarekin lotuta dagoela azaldu du eta ondorengo irizpena aurkeztu du:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO

IRIZPENA

GAIA: 2020 KO UDALEKO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAK, 7.GO ATALEAN XEDATURIKOA ALDATZEARI BURUZKO IRIZPENA PRESAZKO IZAERAZ IZAPIDETZEA

1.- AURRERAKIAK

Koronabirusaren ondorioz alarma egoera izendatu du gobernuak. Hasieran 15 egunetarako onartu zena orain beste 15 egun luzatuko dira. Azkoitiko familia asko egoera oso gogorak pairatzen ari dira eta Udalak neurriak hartu nahi ditu ongizate sailean hauei guztiei laguntzak bideratzeko. Honen guztiaren larritasunagatik presazko izaeraz izapidetzea proposatzen da.

Laguntza hauek premiazkoak dira eta honegatik beharra ikusi da ongizate sailean kokaturik da goen hainbat dirulaguntzen partidatik, 4000.481.231.30.03 2020 zehazki, “zuritu beharreko” izaerako ordainketa aginduak egin ahal izango direla onartzea.

PARTIDA	IZENA / NOMBRE	JASOTZAILEA / PERCEPTOR	MUGA / LÍMITE (€)
1 4000.481.231.30.03	Hainbat Dirulaguntza	IÑAKI LASA	6.000,00

Egindako ordainketak dirua jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritu gabeko funtsik ez izatea

Honek guztiak Udal arauak 7. artikuluan xedaturikoak aldatu egin du, bai Aurrekontua gauzatzeko jardunbidea arautzeko arauak

OINARRI JURIDIKOA

LEHENENGOA: PRESAZKO IZAERA:

Urriaren 1eko 39/2018 legearen 33. Artikuluan xedatzen da era honetara:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

33. artikulua. Presaz izapidetzea.

1. Interes publikoaren arrazoiak direla eta, prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizioz edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, erdira murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekurtsioak aurkeztekoak.

2. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu prozedura presaz izapidetzekoa dela deklaratzeko duen erabakiaren kontra, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzea.

BIGARRENGOA:AURREKONTUA EXEKUTATZEKO UDAL ARAUA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, bere 9. Artikuluan xedatzen du Aurrekontua nola exekutatu behar den arautzen duen Udal araua, era honetara:

9. artikulua. Aurrekontuak Gauzatzeko Araua.

Toki erakundearen aurrekontu orokorretan Aurrekontuak Gauzatzeko Araua egon behar da; bertan aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara moldatu behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira: gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietan eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomi administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere.

IRIZPENA

LEHENA.- Udaleko aurrekontua gauzatzeko udal arauak 7 atalean xedaturikoa aldatzeari buruzko irizpena honako testu hau proposatuz:

7. artikulua.- Zuritu beharreko Articulo 7.- Pagos a justificar ordainketak

Ordainketa agindu guztiak agiri bidez Como excepción al principio de justificación justificatzeko printzipioaren salbuespen documental de toda orden de pago que se gisa, eta hurrengo artikuluan araututako expida, podrán emitirse mandamientos con kutxa finkoko aurrerakinen zirkuitu bidez el carácter de "a justificar" con cargo a las egitea ezinezkoa denean, "zuritu siguientes partidas presupuestarias y con beharreko" izaerako ordainketa aginduak los límites que se señalan. egin ahal izango dira, aurrekontu partiden



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

kargura eta muga hauen barne:

PARTIDA	IZENA / NOMBRE	JASOTZAILEA / PERCEPTOR	MUGA / LÍMITE (€)
3000,226,338,00,01	ANDREMAIXEK	JESÚS ARRIZABALAGA	15.000,00
3000,226,338,00,02	SAN ANDRESAK	JESÚS ARRIZABALAGA	8.000,00
3000,226,338,00,00	ZENBAIT JAI	JESÚS ARRIZABALAGA	5.000,00
3100,226,334,00,00*	MUSIKA EKITALDIAK	JESÚS ARRIZABALAGA	5.000,00*
8000,226,431,10,06	AZOKA EKITALDIAK	KONTXI LARRAÑAGA	4.000,00
4000,226,231,70,05	KALEKO HEZITZAILEEN KORO EPELDE EGITASMOA		6.000,00
4000.481.231.30.03	HAINBAT DIRULAGUNTZA	IÑAKI LASA	6.000,00

*3100.226.334.00.00 partida honi atxikiturik, Jesus Arrizabalagak, abenduan, 500 € gehiengoz jaso ditzake jaiotza eramangarrien lehiaketako ordainketak egiteko, nahiz eta San Andres jaietako gastuak zuritu gabe eduki une horretan.

ELKARGUNE			
PARTIDA	IZENA / NOMBRE	JASOTZAILEA / PERCEPTOR	MUGA / LÍMITE (€)
1000.227.337.20.01	Gazteria zerbitzua	PEIO LARRAÑAGA	2.000,00
1000.227.337.20.02	Gabonetako ekintzak	PEIO LARRAÑAGA	1.500,00
1000,227,337,20,06	Psikomotrizitate eremua - Jokuen berritzea eta LH4-LH6rako jokuen erosketa	PEIO LARRAÑAGA	500,00



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1000,226,337,20, 05	HNG (Haur, nerabe eta gazteekin ekintzak)	PEIO LARRAÑAGA	2.000,00
1000.227.337.20. 03	Ludoteka-gaien erosketak	PEIO LARRAÑAGA	600
	SAN JOSE EGOITZA		
PARTIDA	IZENA / NOMBRE	JASOTZAILEA / PERCEPTOR	MUGA / LÍMITE (€)
1 0000 226 231 90 06	Gizarte eta kultur ekintzak	IÑAKI LASA	500

Egindako ordainketak dirua jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritu gabeko funtsik ez izatea.

La justificación de los fondos librados deberá efectuarse en el plazo máximo de tres meses desde la percepción de los mismos.

Será requisito imprescindible para expedir mandamientos a justificar que el perceptor no tenga fondos librados anteriormente pendientes de justificación.

BIGARRENA.- Udalbatzarrari dagokio aipatutako espedientea onartzea.

Presazko izaeraz kudeatu denez Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako informazioari, erreklamazioei, publizitateari eta baliabideei buruzko izapideak zaizkio aplikatzekoak eta epeak erdira murriztuko dira, hau da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jende aurrera azalduko da zortzi egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

HIRUGARRENA.-Antolakuntza batzordeak egingo duen hurrengo bileran irizpen hau berretsi beharko du.”

Egokia iruditzen zaiela adierazi du Jose Joakin Etxaniz jaunak, ebaluazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikarien menpe uztea erabaki ona delako.

Alkate jaunak gai honetan buru belarri lanean ari dela Udala esan du, eta berri on bat eman nahi du. Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak martxoaren 24an Gizarte Larrialdietarako 16 milioi eurotako igoera onartu zuela jakinarazi du, eta ondorioz herrien sailkapenen arabera Azkoitiko herriak 65.678€-ko igoera jasoko du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko Udaleko aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldaketa hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

6.- ELKARGUNEKO TASEN APLIKAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA, ELKARGUNEKO ERAIKINEAN EMATEN DIREN ZERBITZUAK ETENDA DAUDEN BITARTEAN.

Ana Azkoitia andreak gaur goizeko gaia dela adierazi du eta premiazko gaia dela. Honela aurkeztu du irizpena:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO

IRIZPENA

GAIA: ELKARGUNEKO TASEN APLIKAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA ELKARGUNEKO ERAIKINEAN EMATEN ARI DIREN ZERBITZUAK ETENDA DAUDEN BITARTEAN

1.- AURREKARIAK

Martxoaren 13ko Alkatearen dekretuaren bitartez Elkarguneko Eraikinean ematen ari diren zerbitzuak eten egiten dira.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaritzen da Estatu Espainiar osoan, Covid-19 gaitzak sortutako osasun krisia kudeatzeko.

Foru Aldundiko Ogasun sailak 1/2020 Foru Dekretu Araua proposatu dio Batzar orokorreari, martxoaren 24koa, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen.

2- ARRAZOI JURIDIKOAK

2/2004 EDL bitartez, Udal Ogasunen araudi juridikoa xedatzen da.

Tasei dagokionez 20. Artikuluak honako hau dio:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Artículo 20 Hecho imponible

1. Las entidades locales, en los términos previstos en esta ley, podrán establecer tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, así como por la prestación de servicios públicos o la realización de actividades administrativas de competencia local que se refieran, afecten o beneficien de modo particular a los sujetos pasivos.

En todo caso, tendrán la consideración de tasas las prestaciones patrimoniales que establezcan las entidades locales por:

- **A)** *La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.*
 - **B)** *La prestación de un servicio público o la realización de una actividad administrativa en régimen de derecho público de competencia local que se refiera, afecte o beneficie de modo particular al sujeto pasivo, cuando se produzca cualquiera de las circunstancias siguientes:*
 - **a)** *Que no sean de solicitud o recepción voluntaria para los administrados. A estos efectos no se considerará voluntaria la solicitud o la recepción por parte de los administrados:*

Cuando venga impuesta por disposiciones legales o reglamentarias.

Artículo 26 Devengo

1. Las tasas podrán devengarse, según la naturaleza de su hecho imponible y conforme determine la respectiva ordenanza fiscal:

- *a) Cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, o cuando se inicie la prestación del servicio o la realización de la actividad, aunque en ambos casos podrá exigirse el depósito previo de su importe total o parcial.*
- *b) Cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.*

2. Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, y así se determine en la correspondiente ordenanza fiscal, el devengo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa, el aprovechamiento especial o el uso del servicio o actividad, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo de la cuota, en los términos que se establezcan en la correspondiente ordenanza fiscal.

3. Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio público, la actividad administrativa o el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

IRIZPENA

LEHENA.- Elkarguneko tasen ezarpena bertan behera uztea Elkarguneko zerbitzuak eta jarduerak etenda dauden bitartean, tasa honen sortzapena etenda gelditu baita.

Martxoari dagozkion tasak likidatuak eta kobratuak daudenez, martxoaren 13tik martxoaren 31 bitartekoak itzuli egingo dira. Behin zerbitzua martxan jartzean, erabakiko da itzultzea nola gauzatu.

Hurrengo hilabeteko kuotak, oinarri zergagarria sortu ez denez, ez dira likidatutako.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIGARRENA.-Behin zerbitzua berriz ere ematen denean automatikoki tasen sortzapean zergagarria emango da eta 2020ko ordenantza fiskalean onarturiko kuotak berriz ere likidatu eta kobratuko dira

HIRUGARRENA.-Antolakuntza batzordeak eta Elkargune Erakunde autonomoaren Artezkaritza batzordeak egingo duten hurrengo bileran irizpena hau berretsiko dute.”

Jose Joakin Etxaniz jaunak aldeko botoa iragarri du, eta galdetu du ea ez al den pentsatzen zerbitzurik ematen ez denez kontratua eteterik. Ana Azkoitiak galde-erreguen puntuan hainbat gai dituela komentatzeko esan dio eta horietako bat horixe dela.

Iraitz Otaño jaunak hainbat herritarrek gai honen inguruan galdetu diela esan du eta aldeko botoa iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Elkarguneko tasen ezarpena bertan behera uztea aho batez erabaki du.

7.- BEHIN BETIKO ONESPENEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak honako behin betiko onespenen berri eman du:

“2019ko abenduaren 27ko Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartuak:

- *2020-2022 Azkoitiko Udalaren Plan Estrategikoa.*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2020ko urtarrilaren 29ko Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartuak:

- *Udaleko aurrekontua gauzatzeko udal araua.*”

8.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	Behin bet. aurr. Pres. def.	Baimendua Autorizado	Erabilia Dispuesto	Onart. oblig. Contraído	Ordainketa Pagado
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	15.110.000,00	4.400.026,70	3.677.153,49	1.551.584,06	1.459.639,82
	Behin bet. aurr. Pres. Def.	Onar. esk. Garb Dchos. Recs..	Bildut-garbia Recaudado	Kobr. Dagoena Pte. cobro	Itzulketak Devoluciones
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	15.613.514,95	3.219.882,13	2.282.974,47	936.907,66	5.544,40

9.- GALDE-ERREGUAK.

Ana Azkoitia andreak hartu du hitza egun bizitzen ari garen alarma egoeraren berri emateko. Osatu den Jarraipen Batzordea astelehenean bildu zela dio, hainbat gairen inguruan. Alde batetik, Gizarte Zerbitzuetako sarearen funtzionamendua zehaztu eta herritarrekin harremanak bideratu dira. Gizarte Zerbitzuetatik hainbat herritarrekin kontaktuan jarri direla jakinarazi du, ostegun eta ostirala lana eginez, nahiz eta jai egunak izan. Honen inguruan prentsa oharra aterako dela azpimarratu du.

Bestalde, kontratazioaren arloari buruz aritu zen Jarraipen Batzordea. Arlo honetan arau berriak ateratzen ari dira eta egunero interpretazio desberdinak daude. Idazkaritzatik udaleko sail guztietara dituzten kontratazio guztien zerrendak egitea eskatu da, luzatu ahal diren zerbitzuak, moztu behar direnak eta normaltasunez jarraitzen dutenak zehaztuz. Kontratuen eteteak kontratazio organoari dagozkiola azaldu du.

Udala telelana bultzatzen ari dela esanez jarraitu du, eta langileen erdia baino gehiago ari dela telelanean, oso ondo funtzionatzen ari delarik. Kasu batzuetan paperezko dokumentazioa beharrezkoa denez, eta ezin denez udaletik atera, txandaka dabilzala azaldu du. Harrera bulegoko langileak adibidez, txandaka etortzen dira udaletxera 08:00etatik 15:00tara ordutegiarekin.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Langileen balorazioak direla eta, gaia asko aurreratuta zegoela azaldu du eta aurrera jarraitzea erabaki dela, izan ere, nominak hilero kontrako txostenarekin egiten dira eta gaiari irtenbidea ematea beharrezkoa ikusten da. Langileen ordezkariekin eta departamentu buruekin bilerak egin direla dio, baina baita sail guztiekin ere gaiak duen garrantzia dela eta. Orokorrean ondo joan direla aipatu du eta dauden proposamen edo alegazioak langileen ordezkarien bidez bideratzea eskatu dela. Ondoren, lanpostuen zerrendaren aldaketa Plenoak onartu beharko du. Ahal den adostasun gehienarekin onartzeko nahi azaldu du, eta batzordeetan gaiaren berri eman bada ere, prozesuaren berri azalpen sakon bat emateko ez dagoela inolako arazorik esan die bertaratuei.

Tributazio epeen inguruko Foru Aldundiaren araua gaur iritsi dela esanez jarraitu du, eta beharrezko erabakiak hartuko direla.

Alkate jaunak esan du, egoera honek, zalantzarik gabe, atzeraldi ekonomiko batera eramango gaituela eta herriko komertzio txikienetatik hasi eta enpresa handienetaraino, guztiekin harremanetan daudela hainbat erakundeetatik etorriko diren laguntzen berri emateko eta horiek eskuratzeko baliabideak jartzeko Iraurgi Berritzenen bidez.

Udaleko sarreretan ere eragina izango duela azaldu du, eta beharra dutenekin ez bada ahaztu behar ere, bete ezin izango diren erabakiak ezin direla hartu gogoratu du. Datu guztiak edukita beharrezko erabakiak hartu behar direla dio, laguntza gehien behar duenari lagunduz. Gipuzkoako Garapen Agentziarekin izandako bileraren berri eman du ondoren.

Iraitz Otaño jaunak kontratuetan zer motatako eteteak izango liritekeen galdetu du. Ana Azkoitiak legeak xedatzen dituela eteteak erantzun dio eta Idazkariari eman dio hitza azalpen juridikoa eman dezan.

Idazkariak eteteak aldi baterakoak izango direla azaldu du, eta beti egoerari lotuta. 8/2020 Errege Dekretuak xedatzen duenaren azalpenak eman ditu. Kontratistek aurkeztu behar dutenez kontratua eteteko eskaera beraiekin harremanetan jarri behar dela gehitu du.

Iraitz Otañok kontratuen eteteak saihesteko EAeko Larrialdi Legeak 73. artikuluan ematen duen aukera planteatu al den gehitu du, hau da, langile horiek beste zerbitzu batzuk indartzeko erabili daitezkeela.

Idazkariak lege berri honen arabera, kontratuen eteteak printzipioz ez dakarrela langileentzat kalterik azaldu du, ez behintzat kalte zuzenik. Printzipioz, langile horien kostuak Udalak ordaindu beha dituelako. Bestalde, errekuperagarriak diren zerbitzuak ere ondoren emateko asmoa dagoela dio. Azkenik, langileak beste zereginetara bideratzea zaila dela deritzo, langileen profilagatik gehienbat.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate jaunak 15 eguneko epean kontratuak ez etetea erabaki zela gogoratu du, baina orain eteteak planteatu beharra dagoela, beti ere, ahalik eta kalte gutxien sortzen saiatuz.

Iraitz Otaño jaunak brigadako langileak egunotan zer lan burutzen ari diren galdetu du eta zein segurtasun neurriekin, izan ere, oso beharrezkoak ez diren lanak burutzen ari direla jakin dute, adibidez, zebra bideak margotzen. Ez al litzatekeen egokiago izango herria desinfektatzeko lanak egitea aipatu du.

Ana Azkoitiak azaldu dio herriko desinfektatze lanak garbiketa kontratua duen enpresa ari dela egiten, eta brigada ahalik eta normaltasun handienarekin jarraitzen duela, beti ere, segurtasun neurri eta material guztiarekin.

Alkate jaunak beti egoten direla komentarioak esan du, baina brigadako langileek ere lanean jarraitzeko eskubidea badutela dio beste guztiak bezala. Gaineratu du brigadak egiten dituen lan guztiak herriaren onurarako direla, eta zaila dela presazkoa zer den eta zer ez baloratzea.

San Jose Egoitzaren inguruan jarraitu du Iraitz Otaño jaunak. Bertako bi langile sukarrarekin bajan daudela dio, eta ea udala gaiaren jarraipena egiten ari den galdetu du, neurri bereziren bat hartzeko asmorik duen, alegia.

Janire Igoa zinegotziak zuzendariarekin kontaktuan dagoela erantzun dio. Egoiliarren egoerarekin kezkatuta egunean hiru aldiz hartzen zaiela tenperatura eta guztiak ondo daudela jakin du. Langileen inguruko informaziorik ez duela aiptau du. Iraitz Otañok langile bat beraiekin harremanetan jarri zela esan du, eta babesten ez duen maskarrilla bakarria berrerabiltzeko besterik ez dietela eman ere esan ziela azaldu du.

Ana Azkoitia andreak ez zutela horren berririk dio, nahiz eta Egoitzarekin gune arriskutsu bat izaki harremanetan dauden. Esandakoari buruz galdetuko dutela dio.

Ondoren, boluntario sarearen inguruan gaur egun zenbat pertsona ari diren zerbitzua erabiltzen galdetu du Iraitz Otañok. Janire Igoak 9 pertsonen eskatu dutela zerbitzua erantzun dio.

Iraitz Otaño jaunak OTA zerbitzua bertan behera geratuko den galdetu du, autoa ezin baita mugitu. Alkate jaunak udaltzain buruarekin kontrastatuta dagoela gaia erantzun dio, eta ez dutela beharrezkoa ikusten esan du, Udaltzaingoa malgutasunez arituko baita.

Aurrekontuetan egon daitekeen murrizketa dela eta, Iraitz Otañok galdetu du ea planteatu den proiekturen bat atzeratzea edo bertan behera



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

uztea. Ana Azkoitiak momentuz ez dela horrelako planteamendurik egin erantzun dio, eta ikusiko dela. Zorionez, gerakina badagoela gaineratu.

Azkenik, Iraitz Otañok galdetu du beraien funtzionamenduan, pleno eta batzordeak telematikoki egitea baloratu al den. Ana Azkoitiak momentuz behar gehiegirik ez dutela ikusten dio, eta behar beharrezkoa denean bakarrik elkartuko direla esan du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, berak duen informazioaren arabera, honakoak aipatu ditu:

- Udaltzaingoa egoki ari dela lanean, babes neurriekin, etab.
- Boluntario taldea dela eta, eskaera gutxi egon arren, eskatzaileengandik hurbil bizi den jendea beharrezkoa denez, jende boluntario taldean izen ematera animatzen du.
- San Jose Egoitzaren inguruan, bertako langile batekin harremanetan egon dela esan du, eta ez diola inongo arazoren berri eman.

Bukatzeko, Ana Azkoitia andreak esan du tributu mailan Foru Arau berriaren arabera, zergen ordainketak ekainaren 1era atzeratuko direla. Dena den, informazio zehatzagoa bidaliko zaiela dio.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, goizeko bederatziak eta laurden direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIA